

IZENORDAINAK ETA PERPAUSEKO HITZEN ORDENA

1 Osatu testua pertsona-izenordain egokia erabiliz.

neuri

zuk

zuek

berari

gu

neuri

neuk

Asteburuan bizikletan ibiltzera joango gara gurekin etorriko zarete? eramango ditut bizikletak furgonetan. janaria erosteaz arduratu zaitezte, ados? Alainek esan du oraingoan tokatzen zaiola ibilbidea aukeratzea, baina ez du astirik; beraz, eskatu dit arduratzeko. Aitor, ezagutzen al duzu ibilbide politen bat?

2 Aukeratu izenordain zuzena esaldi bakoitzean.

- Alaine eta Izaro *elkarri / elkar* begira egoten dira gelan.
- *Neure buruari / Neure buruarekin* esaten diot: lortuko duzu!
- Guk geuk zaindu behar dugu *geure buruari / geure burua*.
- *Elkarren / Elkarri* gainean utzi ditut bizkar-zorroa eta txapela
- Hainbat urte daramate *elkarri / elkar* ikusi gabe.
- Mikel oso harro dago *bere buruarekin / bere buruari*.

3 Aukeratu izenordain zehaztugabe egokiak esaldiak osatzeko.

- Hori ez zaio gertatu, ezinezkoa da!

☐ norbaiti

☐ inori

☐ edonori

- giltzak utzi ditu mahai gainean.

☐ Norbaitek

☐ Inork

☐ Edonork

- Gure txakurrak jaten du.

☐ zerbait

☐ ezer

☐ edozer

4 Ordenatu hitzak ezezko esaldiak osatzeko.

- hortzak / ez / ari. / garbitzen / da / Ander

.....

- zaie / uretan / ez / Katuei / gustatzen. / bainatzea

.....